# GORABIDE

Nº 299 Zk.
2021EKO IRAILA
SEPTIEMBRE DE 2021

ADIMEN DESGAITASUNA | DISCAPACIDAD INTELECTUAL
BIZKAIA

INFORMACIÓN BBK SAIOA
GORABIDE INFORMAZIOA

**Koordainketaren salbuespena**
**Exención del copago**
pg. 4 or.



**Etxean laguntza-plana**
**Plan de apoyo en casa**
pg. 6 or.



**Batzarraren emaitza**
**Resultado de la asamblea**
pg. 7 or.




# Hamabi hilabete “Zurekin”

*Pandemian gure familiei lagun egiteko programak ia 1.700 plaza izan ditu guztira hainbat ekintzatan*

# Doce meses “Contigo”

*El programa con el que hemos mantenido el acompañamiento a nuestras familias durante la pandemia suma casi 1.700 plazas en diferentes acciones*



## Este año, hemos ofrecido 239 plazas de vacaciones en verano

[ pg. 5 ]

## Aurten, 239 opor-plaza eskaini ditugu udan

[ 5. or. ]

GORABIDE
ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
Licenciado Poza 14, 2 - 48011 Bilbao | Tel. 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/gorabide | twitter.com/gorabide | youtube.com/Gorabide | instagram.com/gorabide

Laguntzen du
Colabora
Bizkaia foru aldundia diputación foral

# Hamabi hilabete “Zurekin”

***Pandemiaren ondorioz mugak izan ditugun arren, gure familiei lagun egiteko programak ia 1.700 plaza izan ditu guztira hainbat ekintzatan***

Pandemiarekin, gure artean jarraitzeko iritsi diren gauzak sortu dira. Eta horixe da gure familiei lagun egiteko Zurekin Programaren kasua; urtebete bete du, covid-19ak zailtasunak sortu dituen arren. Konfinamenduak, pertsonak elkartzeko mugak, edukiera mugatuak… inguruabar horien eta beste batzuen ondorioz, ezinezkoa zen laguntza-taldeekin jarraitzea eta, gainera, agerian uzten zituzten osasun-krisiak eragiten zituen efektu negatiboak eta beharrak.

Horregatik, 2020ko irailean eta urrian, Prestakuntzako eta Familiek Parte Hartzeko Zerbitzuak ehun bat familiari deitu zion telefonoz, haien egunerokotasunaren berri izateko eta ahalik eta laguntza handiena emateko. Horri esker, gure Zurekin Programa osatuko zuten laguntasun-modalitateak definitu ahal izan ziren: banakakoak, kontaktu telefoniko bidezkoak, bideo-deien bidezkoak eta aurrez aurreko jarraipenak, beharrezkoa zenean; eta taldekakoak, saio telematikoekin, tailer monografiko birtualekin, talde txikitan eta ‘udako pilulak'.

**Ia 1.700 plaza**

Laguntasuna emateko formatu horietan guztietan, 1.695 plaza egon da guztira; horietatik 1.465 taldetan, eta 230 banaka. Eta formatuari dagokionez, telematikoak izan dira 1.588, eta aurrez aurrekoak 107. Parte-hartze indizeak eta izena eman duten familien balorazio subjektiboak kontuan izanda, Zurekin Programaren esperientziak formatu telematikoarekin jarraitzeko aukera kontuan hartzera eraman gaitu, gure Familien Prestakuntza eta Partaidetza Zerbitzuaren aurrez aurreko jarduerekin ere jarraitu arren.

**Erantzun malgua eta arina**

Zurekin Programaren proposamenen dibertsifikazioari esker, familiek eskatutako beharren eta laguntzamailen mapa anitzari malgutasunez eta azkar erantzuteko aukera izaten ari gara. Modulatzen doan formatua da, gainera, familiekiko egunez eguneko harremanean oinarrituta; eta aldakorrak diren inguruabarrei aurre egiteko ekintza berriak gehitzen joateko aukera ematen du. Beraz, elkartearen jarduera eta gure familienganako laguntza-dinamikak areagotzeko osagarri ezin hobea izatera irits daiteke.

> Zurekin Programak gure familiei lagun egiteko balio du, pandemiak gauza asko egitea galarazten duen arren. Orain dela urtebete hasi zen, eta ia 1.700 plaza eskaini ditu. Deiak eta bideo-deiak egin dira, hitzaldi eta tailer telematikoak, talde murritzak eta informazio-bideoak. Horren arrakastatsuak izan dira jarduerok, ezen horiekin jarraituko baitugu.



## SMS bidezko komunikazioak

**Mugikorreko mezuak (sms) dira Zurekin Programa familiei intereseko edukiak eta informazioa helarazteko erabiltzen ari den komunikazio-bideetako bat. ‘Udako pilulak’ ekintza aitzindarietako bat dira informazioa transmititzeko smsen erabileran; familia ugarirengana iristeko aukera ematen du. Eta gure Familien Prestakuntza eta Partaidetza Zerbitzuak komunikazio-modalitate horrekin jarraituko du, informazio eskuragarri, argi eta zehatza garaiz emateko, eta familiak hori erabiltzera gonbidatzen ditu.**

## Comunicaciones a través de sms

**Una de las vías de comunicación que está utilizando el Programa Contigo son los mensajes de móvil (sms), para hacer llegar a las familias contenidos e información de interés. Las ‘píldoras de verano’ son una de las acciones pioneras en el uso de sms como vía de transmisión de información, que permite llegar a una gran cantidad de familias. Y nuestro Servicio de Formación y Participación Familiar va a seguir desplegando esta modalidad de comunicación para facilitar información accesible, clara, concreta y con suficiente antelación, e invita a las familias a utilizarla.**



# Doce meses “Contigo”

***El programa con el que hemos mantenido el acompañamiento a nuestras familias a pesar de las restricciones derivadas de la pandemia suma casi 1.700 plazas***

Con la pandemia, ha habido cosas que han llegado para quedarse. Y ese es el caso de nuestro Programa Contigo, que cumple un año acompañando a nuestras familias a pesar de las dificultades generadas por el covid-19. Confinamientos, limitación en el agrupamiento de personas, aforos restringidos... son algunas de las circunstancias que hacían imposible mantener los grupos de apoyo y, además, evidenciaban los efectos negativos y las necesidades que provocaba la crisis sanitaria.

Por eso, entre septiembre y octubre de 2020, nuestro Servicio de Formación y Participación Familiar realizó llamadas telefónicas a unas cien familias, para interesarse por su día a día y facilitarles todo el apoyo que fuera posible. Esto permitió definir las modalidades de acompañamiento que configuraron nuestro Programa Contigo: individuales, a través de contactos telefónicos, videollamadas y seguimientos presenciales cuando así se requería; y grupales con sesiones telemáticas, talleres monográficos virtuales, grupos reducidos y ‘píldoras de verano’.

**Casi 1.700 plazas**

En todos esos formatos de acompañamiento, se han ocupado 1.695 plazas, de las que 1.465 han sido grupales y 230 individuales. Y en lo que respecta al formato, 1.588 han sido telemáticas y 107 presenciales. La experiencia del Programa Contigo, teniendo en cuenta los índices de participación y las valoraciones subjetivas de las familias inscritas, nos lleva a considerar la opción de mantener el formato telemático junto con las actividades presenciales de nuestro Servicio de Formación y Participación Familiar.

**Respuesta flexible y ágil**

La diversificación de propuestas del Programa Contigo está permitiendo responder de manera flexible y ágil al diverso mapa de necesidades e intensidades de apoyo requerido por las familias. Es, además, un formato que se va modulando en base a la relación en el día a día con las familias, y que permite ir incorporando nuevas acciones para hacer frente a circunstancias cambiantes. Por lo tanto, se puede convertir en un complemento perfecto para incrementar la actividad asociativa y las dinámicas de apoyo a nuestras familias.

> El Programa Contigo sirve para acompañar a nuestras familias a pesar de todo lo que no se puede hacer por la pandemia. Este programa empezó hace un año, y ha ofrecido casi 1.700 plazas. Ha habido llamadas y videollamadas, charlas y talleres telemáticos, grupos reducidos y vídeos informativos. Estas actividades han tenido un éxito tan grande que se van a seguir haciendo.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Exención del copago farmacéutico

Desde enero de 2021, a través de la Ley de Presupuestos Generales del Estado, se amplían los colectivos que pueden beneficiarse de la gratuidad en el copago farmacéutico, incluyendo a las **personas con discapacidad y sus familias**. De ese modo, estarán exentas del copago farmacéutico las personas usuarias y beneficiarias que pertenezcan a una de las siguientes categorías:

1. **Personas menores de edad con un grado de discapacidad reconocido igual o superior al 33%.** En todo caso, tienen que tener reconocido el derecho a la asistencia sanitaria por el Sistema Nacional de Salud. Menores con una discapacidad igual o superior al 33% que no tengan exención farmacéutica podrán solicitarla al Instituto Nacional de la Seguridad Social acreditando su discapacidad.

2. **Personas perceptoras de la Prestación Económica de la Seguridad Social por Hija o Hijo a Cargo**, con independencia de la edad que tenga la persona con discapacidad causante de la prestación. En este caso, la exención del copago farmacéutico se extiende a todos los miembros de la familia que consten en el expediente de la Prestación Económica por Hija o Hijo a Cargo, así como sus personas beneficiarias. Para evitar en lo posible que quienes pueden beneficiarse de esta exención tengan que realizar la solicitud, el Instituto Nacional de la Seguridad Social la ha aplicado de oficio a todas las personas perceptoras de Protección Familiar y sus beneficiarias.

**PARA RESOLVER CUALQUIER DUDA, PODÉIS PONEROS EN CONTACTO CON VUESTRA TRABAJADORA SOCIAL DE REFERENCIA DEL SERVICIO BBK SAIOA GORABIDE.**

# Koordainketaren salbuespena

2021eko urtarriletik aurrera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen bitartez, ugaritu egin dira botiken koordainketa partekatuan doakotasuna aprobetxa dezaketen kolektiboak. Horien artean daude **desgaitasunak dituzten pertsonak eta horien familiak**. Horrela, botiken ordainketa partekatutik salbuetsita egongo dira honako kategoria hauetan biltzen diren erabiltzaileak eta onuradunak:

1. **%33 edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta duten adingabekoak.** Edozein kasutan, aitortua izan behar dute Osasun Sistema Nazionalean osasun-arreta jasotzeko eskubidea. % 33 edo gehiagoko desgaitasun-maila duten baina oraindik salbuetsita ez dauden adingabeek Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalean eskatu ahal izango dute salbuespena, desgaitasun-maila egiaztatzen duen agiria aurkeztuta

2. **Seme-alabak ardurapean izateagatiko Gizarte Segurantzaren Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten pertsonak**, prestazio-eskaeraren xede den pertsonaren (desgaitasuna duena) adina edozein delarik ere. Kasu horretan, botiken ordainketa partekatuaren salbuespena familiako kide guztiei aplikatuko zaie, hau da, Seme-alaba ardurapean izateagatiko Prestazio Ekonomikoaren espedientean jasota dauden pertsona guztiei, baita onuradunei ere. Salbuespenaren hartzaile izan daitezkeen pertsonek eskabidea egin behar izatea saihesteko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ofizioz ezarri die Babes Familiarraren hartzaile eta onuradun diren pertsona guztiei.

**EDOZEIN ZALANTZA ARGITZEKO, JARRI HARREMANETAN BBK SAIOA GORABIDE ZERBITZUAN ERREFERENTZIAZKOA DEN GIZARTE-LANGILEAREKIN.**

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**
**661 58 01 98**

# Hemos ofrecido 239 plazas de vacaciones

## *Organizamos 15 estancias de una semana y 54 salidas de día por Bizkaia, en los meses de julio y agosto, siguiendo las recomendaciones sanitarias y con la máxima prevención*




En otro verano condicionado por el covid-19, nuestro Servicio de Tiempo Libre ha mantenido su programa de vacaciones, adaptándolo a las indicaciones sanitarias. Han sido 119 plazas para estancias de una semana en Lekeitio, La Arboleda, Balmaseda, Munguia, y Durango; y 120 plazas en salidas de día por Bizkaia. Durante julio y agosto, los 24 grupos que se han organizado han disfrutado de rutas en barco, visitas a museos y lugares de interés, actividades de piraguas y surf, y mucho más.

Alexandru Nichita es una de nuestras personas usuarias que ha realizado salidas de día entre el 1 y el 13 de julio "encantado con los compañeros y los monitores". Lo que más le ha gustado ha sido la visita a Ferrería El Pobal "porque me recordó a las herramientas antiguas que hay en casa de mis abuelos, en Rumanía". Y confiesa: "igual me gusta más hacer actividades así y volver a casa a dormir que pasar dos semanas fuera como cuando no había covid".

**Voluntariado comprometido**

Por su parte, Michelle García es una de las 72 personas voluntarias que han destacado por su alto compromiso e implicación a pesar de las dificultades derivadas de la pandemia. Es su segundo año, y ha estado del 5 al 11 de julio en Mungia "disfrutando de las actividades, de las personas usuarias y de las compañeras". "Se ha hecho corto, y raro por el covid", asegura. "Pero ha sido como una pequeña familia creada en una semana", destaca. "Quiero volver a repetir, pero ya sin covid", desea.

# Udako 239 opor-plaza eskaini ditugu

## *Astebeteko 15 egonaldi eta 54 eguneko irteera antolatu genituen Bizkaian, uztailean eta abuztuan, osasun-gomendioei jarraituz eta ahalik eta prebentzio handienarekin*

Covid-19ak baldintzatutako beste uda batean, gure Aisialdi Zerbitzuak oporren programari eutsi dio, osasun-jarraibideetara egokituz. Astebeteko egonaldietarako 119 plaza izan dira Lekeition, Zugaztietan, Balmasedan, Mungian eta Durangon; eta 120 plaza eguneko irteeretan Bizkaian. Uztailean eta abuztuan, antolatu diren 24 taldeek itsasontziz egindako ibilaldiez, museoetara eta leku interesgarrietara egindako bisitez, piraguekin eta surfarekin lotutako jarduerez, eta askoz gehiagoz gozatu dute.

Alexandru Nichita uztailaren 1etik 13ra bitartean eguneko irteerak egin dituen gure erabiltzaileetako bat da, "Oso pozik lankideekin eta begiraleekin". Gehien gustatu zaiona El Pobal Burdinolara egindako bisita izan da, "Nire aitona-amonen etxean, Errumanian, dauden tresna zaharrak gogorarazi zizkidalako". Eta aitortu du: "Agian gehiago gustatzen zait horrelako jarduerak egitea eta lotara itzultzea, kanpoan bi aste pasatzea baino, covidik ez zegoenean bezala"

**Boluntariotza konprometitua**

Michelle García, berriz, pandemiak eragindako zailtasunak gorabehera, konpromiso eta inplikazio handia izateagatik nabarmendu diren 72 boluntarioetako bat da. Bigarren urtea du, eta uztailaren 5etik 11ra izan da Mungian, "Jarduerez, erabiltzaileez eta kideez gozatzen". "Laburra eta arraroa covidagatik egin da", baieztatu du. "Baina astebetean sortutako familia txiki bat bezalakoa izan da", nabarmendu du. "Berriro errepikatu nahi dut, baina covidik gabe", desiratu du.

# Gure eguneko zentroetarako irtenbide bat

***50 familiak baino gehiagok jaso dute laguntza etxean, zerbitzua erabili ez duten bitartean***

Azkeneko urtean, gure eguneko zentroetako erabiltzaileentzako etxeko laguntza-plan bati eutsi diogu, covid-19ak eragindako epidemia-egoeragatik zerbitzua erabiltzen ez jarraitzea erabaki zuten familiei zuzenduta. Guztira, 53 izan dira adimen-urritasuna duten pertsonen eta haien familia-ingurunearen ongizatea hobetzen jarraitzera bideratutako jarduketen onuradunak.

Hainbat laguntza-modalitatetan, 1.482 ekintza egin dira: telefonoz, modu telematikoan, aurrez aurre edo beste unitate batzuetara bideratuta. Eta ohikoena eta eskaera handiena izan duena telefono bidezko kontaktua izan den arren, nabarmentzekoak dira etxean zeuden erabiltzaileen eta zentroetara joaten zirenen arteko bideo-deiak; taldearekiko kontaktuari eusteko eta jardueretan parte hartu ahal izateko modu bat izan da.

**Bakoitzari egokituta**

Inguruabar bakoitzera egokitu dira ekintzak: ikusmenik gabeko erabiltzaileak, zeintzuei mugikorraren bozgorailua jar diezaieten gustatzen zaien, beste aldean dagoenaren ahotsa entzuteko; bideo-deietan haien senitartekoekin batera parte hartzen dutenak; telefonoz egin duten guztia kontatzen dutenak eta egiten zaizkien galderei bakarrik erantzuten dutenak, baina deia jasotzeko irrikaz egoten direnak…

Bere aldetik, familiek ‘desahogo’ une bat, laguntza bat eta elkartasun oso garrantzitsu bat gisa baloratu dituzte esku-hartze hauek.



# Una solución para personas usuarias de centros de día

***Más de 50 familias han recibido apoyo en casa, durante el tiempo que han optado por no hacer uso del servicio***

Durante el último año, hemos mantenido un plan de apoyo en casa, para personas usuarias de nuestros centros de día cuyas familias optaron por que no se incorporaran al servicio debido a la situación epidemiológica generada por el covid-19. En total, 53 familias se han beneficiado de las actuaciones dirigidas a seguir contribuyendo al bienestar de las personas con discapacidad intelectual y al de su entorno familiar.

Se han realizado 1.482 acciones, en varias modalidades de apoyo: telefónico, telemático, presencial o derivación a otras unidades. Y, aunque lo más habitual y demandado ha sido el contacto por teléfono, destacan las videollamadas realizadas entre personas usuarias que estaban en sus domicilios y quienes iban a los centros, como una forma de mantener el contacto con el grupo y de poder participar en las actividades.

**Adaptadas a cada persona**

Las acciones se han adaptado a cada circunstancia: personas usuarias sin visión a las que les gusta que les pongan el altavoz del móvil para oír la voz de quien está al otro lado; otras que participan en las videollamadas acompañadas de sus familiares; quienes se ponen al teléfono para contar todo lo que han hecho y quienes sólo responden a las preguntas que reciben, pero que están deseando que llegue la llamada...

Por su parte, las familias han valorado estas intervenciones como un momento de desahogo, una ayuda y un apoyo muy importante.




# La Asamblea aprueba la gestión de 2020 y los nuevos planes

Las personas que son socias de Gorabide refrendaron en la asamblea la gestión del ejercicio pasado, que se cerró con un 61,54% de ejecución de los planes y con los objetivos alcanzados en el 76% de los principales indicadores de actividad. También validaron el reenfoque de la actividad con la que hicimos frente a la situación generada por la pandemia, y aprobaron el déficit provocado por los costes de las medidas anti-covid.

**Estrategia hasta 2023**

Igualmente, dieron su visto bueno al Plan Estratégico del periodo 2021-2023, al plan de gestión y al presupuesto para este año, y a una cuota de 80 euros para 2022.

Además, en asamblea extraordinaria, facultaron a la junta directiva para que pueda gestionar la parte que nos corresponde de los inmuebles provenientes de una herencia recibida del Sr. Carlos Manuel Aguado Pujana.

# Batzarrak 2020ko kudeaketa eta plan berriak onartu ditu

Gorabideko bazkide diren pertsonek iazko ekitaldiko kudeaketa berretsi zuten batzarrean; izan ere, %61,54ko exekuzioarekin itxi ziren planak eta lortutako helburuak jarduera-adierazle nagusien %76an. Pandemiak sortutako egoerari aurre egiteko jardueraren birmoldaketa ere baliozkotu zuten, eta covid-aren aurkako neurrien kostuek eragindako defizita onartu zuten.

**2023ra arteko estrategia**

Era berean, ontzat eman zituzten 2021-2023 Plan Estrategikoa, aurtengo kudeaketa-plana eta aurrekontua, eta 2022rako 80 euroko kuota.

Gainera, ezohiko batzarrean, zuzendaritza batzordeari ahalmena eman zioten Carlos Manuel Aguado Pujana jaunaren herentziatik jasotako higiezinetatik dagokigun zatia kudeatzeko.

## LABURRAK BREVES

### Gerentearen erreleboa

Irailaren 2an, gure elkarteko gerentziaren erreleboa izan da. Txema Francok, lehen Lantegi Batuak erakundeko zuzendari nagusia zenak, bere gain hartu du erantzukizuna, Pablo Gonzálezek erretiroa hartu baino lehen, erretiroa hartu arte holkularitza-lanak egiten jarraituko baitu.

### Relevo de gerente

El 2 de septiembre, se ha producido el relevo en la gerencia de nuestra asociación. Asume la responsabilidad Txema Franco, anteriormente director general de Lantegi Batuak, como paso previo a la jubilación de Pablo González, que continuará, hasta la fecha definitiva de su jubilación, desempeñando funciones de asesoría.

### Esaiguzu aldizkariari buruzko zure iritzia

Datorren hilabetean, gure aldizkariaren 300. alea argitaratuko dugu, eta irakurleen profil guztietako iritziak jaso nahi ditugu: adimen-urritasuna duten pertsonenak, familienak, profesionalenak, beste erakunde batzuetako ordezkarienak… Zurea bidal dezakezu helbide honetara: comunicacion@gorabide.com.

### Danos tu opinión sobre la revista

El próximo mes, publicaremos el número 300 de nuestra revista, y queremos incluir opiniones de todos los perfiles de gente que la leen: personas con discapacidad intelectual, familias, profesionales, representantes de otras entidades... Puedes mandar la tuya a comunicacion@gorabide.com.

# GORABIDE

SEPTIEMBRE DE 2021 | Nº 299 Zk | 2021EKO IRAILA

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

## ARGAZKIA LA FOTO




**Conchi Basabek jaso zuen eman diguten BBK Deia Elkartasun Saria “bizitza betea eta duina bizi izan dezaten, adimen desgaitasuna duten pertsonentzako gizarteratze erreferentea” izateagatik.**

**Conchi Basabe recogió el premio BBK Deia Elkartasun Saria que nos han concedido por ser “un referente de inclusión para las personas con discapacidad intelectual, con el objetivo de que vivan una vida plena y con dignidad”.**

# AGENDA iraila septiembre

gorabide.com/agenda

### AUTOGESTOREAK

**Gazteak:** astelehena 27, 18:00etan. *(telematikoa)*

**Indarra:** asteartea 28, 18:00etan. *(telematkoa)*

**Emakumeak:** asteazkena 29, 18:00etan. *(telematikoa)*

### AUTOGESTORAS Y AUTOGESTORES

**Jóvenes:** lunes 27, a las 18:00. *(telemática)*

**Indarra:** martes 28, a las 18:00. *(telemática)*

**Mujeres:** miércoles 29, a las 18:00. *(telemática)*

## Gorabide Eguna, berriro ‘online’

Irailaren 13an, gure 59. urtebetetzea ospatuko dugu. Zuzenean jarraitu ahal izango duzu gure Youtube kanalaren bidez, eta euritakotada birtualean parte hartu Facebook, Twitter edota Instagram bidez, #GorabideEguna2021 traolarekin.




## El Día Gorabide, de nuevo ‘online’

El 13 de septiembre, celebramos nuestro 59 cumpleaños. Podrás seguir la retransmisión en directo por nuestro canal de Youtube, y participar en la paraguada virtual a través de Facebook, Twitter o Instagram, con el hastag #DíaGorabide2021.

D.L./L.G. BI-394-2014